

## Komunitate oso baten festa eguna



Ikasleen txokoa Belarren inguruan ikerketa  
Zertan gabilta Harpa jotzailearen bisita HHn





# agenda

## ABENDUA

DBH

DBH 3: Abenduaren 20an irteera, Tabakalera eta irristaketa.

## URTARRILAA

DBH

DBH 4: San Juan Bosco eguna eta alkohola, hitzaldia.

## MARTXOA

### HAUR HEZKUNTZA

Arapjolearen bisita.

Patxin eta Potxin pailazoak.

2, 3 eta 5 urtekoak txiki parkera egun osoko irteera.

Herrian irteera.

Jolastuz eta gozatuz denak elkarrekin.

HH3: Kultur desberdinetako jakien dastaketa.

HH4: Aquariumera txangoa.

HH5: Antzerkia ikustera.

DBH

DBH 1: Irteera Etxarrira, Paz de Zigandakoekin kidetuta.

Ciberbullying ikastaroa.

Kultur asteko ekintzak: dantza,

Oiangun bazkaria, pilota finalak.

DBH 2: Ikasbidaia eskiatzera.

Sexu heziketa.

Mendi irteera.

Kultur asteko ekintzak: dantza,

Oiangun bazkaria, pilota finalak.

DBH 3: Kultur asteko ekintzak: dantza, Oiangun bazkaria, Ohian Vega, Zuhaitzikoekin ekintzak.

DBH 4: Sexu heziketa.

Kultur asteko ekintzak: dantza,

Oiangun bazkaria.

DBHO

CAFera irteera

ERASMUS+ bidaia

MIKEL ETXARRI SARASOLA  
Jakintza ikastolako zuzendaria



## IKASTOLA, EUSKAL HERRIKO ESKOLA

Gauza jakina da administrazioak ez dituela beti asetzen herritarron nahiak, eta horrelakoetan, hauen antolakuntza da geratzen den aukera bakarra gizartearen borondateari bidea emateko. Duela 50 urte espiritu hori izan zen gure sortzaileak bultzatu zituena Jakintza Ikastola sortzera. Frankismoaren ukazioari aurre eginez, herri ekimenak gorpuztu zuen gure proiektua, eta beste ikastolekin batera, euskaldun guztion Euskal Eskola izan nahi zuenaren ernamuina hazten hasi zen.

50 urte igaro eta egoera asko aldatu bada ere, oraindik ere derrigorrezko euskal hezkuntza Euskal Herri osoan berma dezakeen erakunde bakarra ikastolak osatzen dugun sarea da. Zein litzateke euskararen egoera Iparraldean edo Nafarroaren hegoaldean ikastolak bertan ez bageunde? Konpetentzietan oinarritutako Euskal Curriculum eta berau jorrazteko eginiko proposamen didaktikoa

herrigintzari egin diogun beste ekarpen handia izan da.

Horregatik, gure aurkako erasoak ugaritzen ari diren garai honetan, leihu hau baliatu nahi dut ikastolon rola aldarrikatzeko. Gu herritik eta herriarentzat jaiotzen ginen. Elite ekonomikoko ikastetxeekin parekatu nahi gaituzten arren, ozen esan nahi dut ikastola herrikoia garena eta herrikoia izaten jarraituko dugula. Guretzat ikasleen jatorria, egoera sozio-ekonomikoa... ez dira ikasleak bereizteko faktoreak. Aitzitik, pertsonak diren heinean, euren bizipenak, kulturak, nahiak, itxaropenak... aintzat hartuz, euren garapena sustatzeko ahal dugun guztia egin eta egingo dugu.

Akaso elite kutsua dario gure ikastolari? Beharbada bai, beharbada zailtasun, estutasun eta murrizketa guztiei aurre eginez, gure proiektua aurrera ateratzeko borrokan ari zareten guraso eta irakasleak **elitekoak zarete!** Biba zuek!!!

**LA IKASTOLA, LA ESCUELA DE EUSKAL HERRIA.** La administración no siempre satisface los deseos de la ciudadanía y en esos casos, el único modo de encaminar la voluntad de la sociedad es la organización. Ese espíritu empujó hace 50 años a nuestros fundadores a crear la Ikastola Jakintza. La iniciativa popular le dio forma a nuestro proyecto haciendo frente a las negativas del franquismo y, junto con otras ikastolas, contribuyó a crear el embrión de la Escuela Vasca de todos los vascos.

A los 50 años, la situación ha cambiado mucho, pero la red de ikastolas es la única que puede garantizar la educación obligatoria vasca en toda Euskal Herria. ¿Cuál sería la situación del euskara en Iparralde o en el sur de Navarra sin las ikastolas? El Curriculum Vasco basado en las competencias y la propuesta didáctica para su desarrollo son otra gran aportación realizada a la comunidad vasca.

En estos tiempos en los que los ataques contra nosotros están creciendo, aprovecho para reivindicar el rol de las ikastolas. Nacimos del pueblo y para el pueblo. Nos quieren equiparar con los colegios de la élite económica, pero somos una ikastola popular y seguiremos siéndolo. Para nosotros, el origen o la situación socio-económica no son factores para diferenciar a los alumnos. Al contrario, tenemos en cuenta sus vivencias, sus culturas, sus deseos, sus expectativas... para potenciar su desarrollo.

¿Nuestra ikastola es elitista? Tal vez si lo es, porque los padres y profesores que trabajáis por sacar adelante nuestro proyecto haciendo frente a dificultades, estrecheces y recortes sois de la élite.

# Belarren inguruan ikerketa

Turkiako bidaiarako hainbat proiektu txiki egin ditugu. Orokorrean, osasunaren inguruko ikerketa egin behar dugu. Horretarako, herrialde bakoitzerako zati bat aztertu dugu; Turkiarako belar eta espezieiek osasunarekin duten erlazioaren inguruko ikerketa egin behar izan dugu.

Lehenik, hainbat logo diseinatu genituen proiektu nagusirako, eta jarraian, erakargarriena aukeratu genuen. Ondoren, talde txikietan banatu ginen espezie eta belar desberdinen inguruan ikerketa bat egiteko. Ikerketa hori baliatuz, belarrak aztertzerako joan ginen Oiangu parke aldera. Horretarako, Ferminen laguntza eduki genuen. Belar eta espezieen inguruan asko dakien pertsona bat da, izan ere, bere bizitza osoan zehar gai honen inguruan jakinmin handia izan du. Belarrak ikertzerako joan baino lehen, Ferminek, arlo honen inguruko azalpen ugari eman zizkigun. Bertan, landare desberdinei buruzko informazioa, eratorria eta erabilera azaldu zizkigun. Ondoren, berak ukendu eta kremak nola egiten dituen ikasteko erakusketa txiki bat ere egin zuen. Hori egin eta gero, landare bila joan ginen, baliagarria izan zitekeen edozein belar hartzen genuen Ferminek beren garrantziaz ohartarazten zigun heinean. Ibilaldiaren ostean, duda guztiak argitu eta oroigarri eta opari modura, berak egindako ukendu bat eman zigun ikasle bakoitzari.

Gainera, binaka edo hiru bana bana banatu ginen eta landare bakoitzari buruzko informazio txosten bat sortu, eta horrekin erakusketa bat egin dugu. Txosten hori, wikipedia entziklopedian argitaratuz, etekin handiagoa ateratu genion. Erakusketa horretarako, hainbat proposamen egin genituen; erakuste modua esaterako. Erakusketan, txostenerako bildu genuen informazioa, aurkezpen modura pasa dugu itxura erakargarriagoa emanez. Horrez gain, belar eta espezieen argazkiak ere jarriko ditugu erakusketan. Zehazki korridorean egongo dira denontzat ikusgai.

Turkian martxoaren 14tik 20ra bitarte egon gara. Han, ikasle greziar, poloniar eta turkiarrekin elkartu gara. Denok egindako lana partekatu dugu. Horretarako, egin ditugun aurkezpenak beste guztien aurrean aurkeztu behar izan genituen ingelesez. Beraz, esan genezake ingeles maila hobetzeko aukera aparta dela. Erroka interesgarria benetan!



**TRABAJO DE INVESTIGACIÓN SOBRE LAS PLANTAS.** Con motivo del viaje a Turquía hemos realizado un trabajo sobre la relación entre la salud, y las plantas y las especias. En primer lugar diseñamos el logotipo del proyecto, y a continuación, comenzamos la investigación propiamente dicha. Para ello contamos con la ayuda de Fermín, experto en plantas medicinales, que tras compartir con nosotros sus conocimientos y enseñarnos cómo elabora sus cremas y ungüentos, nos acompañó a Oiangu a analizar las plantas in situ y a recoger algunas especias. Al finalizar, nos regaló una de sus cremas a cada uno de nosotros.

Luego, elaboramos un informe sobre las plantas que recogimos y subimos la información a Wikipedia. También montamos una exposición con un diseño muy atractivo y a la que vamos a añadir las fotografías de las plantas, para exponerlo todo en los pasillos.

Nuestra estancia en Turquía ha sido del 14 al 20 de marzo y allí nos hemos reunidos con más estudiantes de Grecia, Polonia y la misma Turquía. En ese encuentro hemos compartido los trabajos que hemos realizado y hemos presentado el nuestro ante los demás, en inglés. Por lo tanto, ha sido una magnífica oportunidad para mejorar nuestro nivel de inglés. ¡Todo un reto!



# IKASTOLAREN EGUN HANDIA, URTEURREN BOROBILEAN

Jakintza Ikastolaren sorreraren 50. urteurrena ospatzeko bazkari jendetsua egin da Beti-Alai pilotalekuan. Ikasle eta irakasle ohi ugari elkartu dira mahaiaren bueltan, garai bateko kontuak berritu, lagun arteko egun atsegin bat igaro eta ikastolari merezitako omenaldia egiteko. Plazan bukatu da festa.



2018ko martxoaren 17a egun seinalatua zen Jakintza Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan. Asko dira oraindik ere ekainera bitarte ikastolak egingo dituen ekintzak, baina joan den larunbateko juntadizoak bazuen halako esanahai berezia ikastolaren komunitatea osatzen duten guztientzat. Ikasle eta irakasle ohien, eta gaur egungo irakasleen bazkaria egin zen Beti-Alai pilotalekuan –500dik gora lagun elkartu ziren–, eta eguna borobiltzeko, kontzertuak izan ziren Plaza Nagusian.

Eguerdi parte horretan, hasi plazatik eta frontoira bitarteko zatian topatutako jende multzo guztiak ikastolari buruz ari ziren hizketan. Batzuk, aspaldi ikusi gabeko

ikasleak besarkatzen, besteak sakelakoarekin argazki zaharrei begira, eta denak, egun pozgarria pasatzeko prest. Euri zaparrada handienak hasterako, frontoia babespian zeuden guztiak ikastolaren 50 urteak ospatzen.

Oroitzapenen liburua, Jakintzaren zuhaitza eta photocall-a, horiek bazkalarerakoak. Taldeka edo bakarka, asko eta asko izan ziren liburuan pasarte idatzi bat utzi zutenak. Zuhaitzean koloretako hatz-arrastoa utzi zutenak beste horrenbeste. Larunbatean, zuhaitzaren zati bakarra zegoen, gainontzekoak ikastolan bertan atonduko baitituzte kolorez etapa bakoitzeko ikasleek. Dena osatzen dutenean, ikusgarri jarriko dute ikastolan. Eta photocall-etik dozenaka

talde pasa ziren: ikastolan elkarrekin ibilitako kintoak, irakasle ohien taldea...

Bazkaritarako tarte hartu ondorenean, hitza hartzeko txanda iritsi zen, oroitzapenak eta aurrera begirakoak partekatuz. Irakasle ohi bat izan zen mikrofonoari heltzen lehena, eta segidan egungo irakasle bat. Ikasle beteranoen txanda iritsi zen gero. Lehenengo eta bigarren promozioiko ikasleek, garaiko ibilerak gogoratzeaz gain, ikastolaren mantentzen duten harremanaz ere aritu ziren. Horietako batek, esaterako, iazko ikasturtean utzi zion ikastolako guraso izateari, belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren eredugarri.

Adin eta garai ezberdinetako ikasle ohiek hartu zuten ondoren lekukoa. Horietako batek idatzi bat irakurri



## ITZALETIK ARGIRA 50 urteurreneko abestia

**1.** Jakin al duzu?  
Zerbait gertatu da!  
Anima zaitetz  
zu ere kantura,  
mende Erdiko  
pozaren doinura.  
Zabal dezagun  
Jakintza mundura!  
Aspaldi hasi  
zen hau dena.  
Ospa dezagun  
garaipena,  
jende askoren  
ekimena  
da Jakintza ikastola!  
Itzaletik argira  
50 urte dira!

**2.** Hirurogeita  
zortzigarren  
bi andereño  
gela barrena,  
50  
ikasle aurrean  
ta gurasoak  
gogotsu lanean.  
Herrigintza ta  
elkarlana,  
geroa eta  
iragana,  
gure izena  
ta izana  
da Jakintza ikastola!  
Itzaletik argira  
50 urte dira!

**3.** Irria lagun  
jolas ta abesti,  
jarraitzen dugu  
goizero amesti.  
Ilusioa  
ez dago garesti!  
Ai ikastolan  
zenbat une eztil!  
Maitasunetik  
Jakintzara,  
konfiantzazko  
besarkada.  
Gure herria  
ta euskara  
da Jakintza ikastola!  
Itzaletik argira  
50 urte dira!



zuen ikastolako oroitzapenekin, eta hizketaldiaren amaieran, Jakintzako irakasle izan zuen ama eta musikako andereñoa –biak hilak– aipatu zituen. Une hunkigarria inondik ere. Eta zer esan Habanera doinuan abestutako bertsoari buruz. Ikasle ohi eta gaur egun guraso den batek jarritako bertsoa egungo irakasle batek abestu zuen, frontoian bildutako guztiak kantari jarritz.

Bazkalondorena etorri zen gero, tertulia, eta bosteko eta besarkada gehiago. Batzuk tabernan zutik, besteak mahaian eserita, gogotsu aritu ziren berriketan. 18:30ak aldera hustu zen frontoia –bakoitzak bere

aletxo jarritz jasotze eta txukuntze lanetan–, eta herrigunera inguratu zen jendea. Plaza Nagusian Fan&Go, Bi Bala eta Ze esatek! taldeen kontzertua izan zen, eta animosoen ibili zirenek goizaldera arte luzatu zuten eguna.

Larunbateko bazkariaren eta kontzertuaren antolakuntzan ibili den taldeak eskerrak eman nahi dizkie lanean aritu ziren guztiei –asko izan ziren–, eta baita egun eder hori pasatzera inguratu ziren guztiei ere. Primeran atera zen dena, eta giro atsegin eta jatorra izan zen nagusi. Urte askotarako Jakintza Ikastola!





## Urteurreneko ekitaldiak

Asteburuan egin den bazkariaren eta kontzertuen ondotik, egitarau zabala du eskua artean oraindik ere Jakintzak ekainera bitarte.

**Apirilak 15:** BECeko finalistekin bertso saioa.

**Apirilak 12, 19 eta 26:** Tailerrak.

**Apirilak 23:** Irakurketa martxa.

**Maiatzak 6:** Jakintzako egoitzetatik ibilaldia.

**Maiatzak 19:** Benito Lertxundiren kontzertua.

**Ekainak 3:** Mendi irteera.

**Ekainak 16:** Ikastolaren eguna.

## Comida, conciertos y homenaje a los fundadores

El pasado sábado, día 17 de marzo, tuvo lugar en el Frontón Beti-Alai **la comida** de ex-alumnos y ex-profesores, y profesores en activo con motivo de los actos de celebración del 50 aniversario de Jakintza Ikastola, encuentro al que asistieron **más de 500 de personas**. Antes de sentarse a disfrutar de la comida, las personas congregadas tuvieron la oportunidad de dejar su huella en el árbol de Jakintza, escribir una nota en el libro de recuerdos o sacarse la correspondiente foto de familia en el photocall.

En la sobremesa llegó el turno de compartir recuerdos y vivencias en voz alta, en el que profesores y ex-profesores, y ex-alumnos tuvieron palabras de agradecimiento hacia la ikastola, donde no faltaron momentos cargados de emoción. Los grupos Fan&Go, Bi Bala y Ze Esatek! fueron los encargados de amenizar la noche en la plaza. El grupo promotor de la comida agradece a todas aquellas personas que han colaborado en la organización.

**HOMENAJE A LOS FUNDADORES Y PRESENTACIÓN DEL LIBRO.** El pasado 2 de febrero comenzó oficialmente la celebración del 50 aniversario de la ikastola Jakintza con un acto celebrado en el Ayuntamiento de Ordizia. Allí se rindió homenaje a los fundadores de la ikastola y se presentaron el libro y el DVD *Itzaletik argira, 50 urte dira* que recogen la historia de Jakintza, así como la canción que ha compuesto Aitor Furundarena para el aniversario.

Los homenajeados fueron Jose Ramon Gaztañaga, Mikel Arrese, Joseba Lasa, Alejandro Ormazabal, Juan Antonio Galparsoro, Juanita Lasa, Xeber Lonbide, Pedro Sukia y las primeras andereños de la ikastola Rosarito Lasa y Mari Karmen Oiarbide (no pudo asistir).

Tras los obsequios y la foto de familia, se presentó el libro que han elaborado entre el ex-director Manu Olano y otros profesores jubilados junto con los periodistas Jon Ordoñez, Aimar Maiz e Iñaki Gurrutxaga. A lo largo de 250 páginas, la publicación recoge los hitos históricos de la ikastola y numerosas colaboraciones de ex-alumnos y promotores. Está a la venta junto con el DVD (20 euros) en la secretaría de San Inazio y en Villa Eugenia.



## Ikastolaren sortzaileei omenaldia eta liburuaren aurkezpena

Pasa den otsailaren 2an eman zien Jakintza Ikastolak hasiera ofiziala 50. urteurrenako ekitaldiei. Negu beteko eguna egin zuen –elurra egin zuen, ez urtarrilaren 6an adina, ordukoan bertsolari finalisten saioa bertan behera geratu zen–, baina Ordiziako udaletxeko areto nagusian giroa bero zegoen, jendez gainezka. Denak prest zegoen mende erdi lehenago ikastolaren sorreran lanean aritutako herritarrei omenaldia egiteko. Ekitaldi berean, *Itzaletik Argira, 50 urte dira* izenburupean publikatutako liburua eta DVDa, eta abestia ere aurkeztu zituzten. Izaro Iraeta eta Arantxa Arza aurkezle eta ikastolako gurasoek gidatu zuten ekitaldia.

Ohorezko agurraren doinupean eta dantzariak egindako arkuan barrena sartu ziren omenduak aretora, bildutakoen txalo artean. Ikastolaren historia biltzen duen DVDrako egindako elkarriketen pasarteak aditu ondoren, eta belaualdien arteko transmisioa irudikatzeko, haien biloben eskutik lore sorta bat eta liburua jaso zuten. Jose Ramon Gaztañaga (Asun Barandiaran emaztea), Mikel Arrese, Joseba Lasa (Juani Otaegi emaztea), Alejandro Ormazabal, Juan Antonio Galparsoro, Juanita Lasa, Xeber Lonbide (Xabier Lonbide semea), Pedro Sukia (Klara Mendizabal iloba), eta Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide –ez zen ekitaldian izan– lehen andereñoak izan ziren omenduak. Rosarito Lasak hitz egin zuen denen izenean, eta segidan taldeko argazkia atera zuten.

Manu Olanok –25 urtez ikastolako zuzendari izana– hartu zuen hitza gero, eta liburuaren sortze prozesuaren inguruko hainbat zertzelada aurreratu zituen. Manu Olano bera eta irakasle ohi talde bat aritu da liburuaren koordinazioan, eta erredakzio lanetan Goierriko hiru kazetari: Jon Ordoñez, Aimar Maiz eta Iñaki Gurrutxaga. Lan taldeak 250 orrialdeko liburu mardula ondu du, eta atalez atal historiako pasarte nagusiei errebaso egiteaz gain, ikasle ohi askok eta hainbat eragilek idatzitako aipamenak jasotzen ditu. Liburua eta DVDa 20 euroan eros daiteke San Inazioko idazkaritzan eta Villa Eugenioan.

Urteurrenerako abestia konposatu duen Aitor Furundarenak ere hitza hartu zuen. Kanta sortzeko prozesuaren berri eman zuen, eta abestia entzuteko aukera ere izan zuten bertaratuek. Mikel Etxarri gaur egungo zuzendariaren hitzaldiarekin amaitu zen ekitaldia. Urteurrenari hasiera ofiziala emateko suziria bota zuten udaletxeko balkoitik, eta Plaza Nagusira jaitsi ziren ondoren mokadutxo bat jatera.



### Liburua

**Izenburua:** Itzaletik argira 50 urte dira.

**Orrialde kopurua:** 250.

**DVDa:** 45 minutu.

**Prezioa:** 20 euro.

San Inazion eta Villa Eugenioan salgai.



# BOGA-BOGA MARINELA!

Euskaldunok antzinatik izan dugu itsasoarekiko lotura; itsasgizon trebeak, balea-ehiztari onak eta ontzigintzan maisuak izan gara.

Euskal ontzigintza-industriak garrantzi handia izan du aspaldiko mendeetan.

Euskal Herritik Ternua aldera joateko egiten ziren zama-ontzi transozeanikoen artean, XVI. mendean Pasaian eraikitako San Joan baleontzia horren ikurra da. Ontzi hori Kanadako Ipar Atlantiar kostaldean hondoratu zen, Red Bay-n. 1978. urtean aurkitu zuten ontzia herritik gertu. Oso ondo kontserbatuta zegoen uraren tenperatura baxuari eta oxigeno gabeko lekuan egoteari esker.

Informazio guztia aztertu eta osatu ondoren, Kanadako Gobernuaren laguntzarekin, Pasaia San Pedron dagoen **Albaola Itsas Kultura Faktoriak** San Juan baleontziaren erreplikaren eraikuntzari ekin zion, euskal ontzigintzak izan duen garrantzi historikoa eta euskaldunok itsasoarekin izan dugun harreman sendoa aldarrikatzeko asmoz.

Gaur egun eraikuntza-lanetan jarraitzen dute XVI. mendean egiten zen modura.

Jakintza ikastolako LH 2. mailako ikasleek aukera izan dute lan horiek nola egiten ari diren ikusteko.

Ea 2020. urtean joaten diren berriz ere, eta XVI. mendeko baleontzi eder hori itsasoratuta ikusten duten! BOGA-BOGA MARINELA!



## NIK DAUZKAT AITONAREN HORTZAK

Ikasturtean zehar asko dira lantzen ditugun konpetentziak. Hainbeste dira, hemen zerrendatzen hasteak oso luze joko lukeela. Baina, oraingoan, LHko 3. zikloan duela urte batzuk martxan jarri genuen proiektu baten berri eman nahi dizuegu, irakurzaletasuna eta sormena uztartu nahi dituen.

Ikasleei liburu bat proposatzen diegu irakurtzeko. Denei liburu berdina. Irakurketa sakon baten ondoren, adimen nagusi bakoitzean oinarrituko den jarduera bat diseinatzea eskatzen diegu. Gelakide guztien ekarpenak entzun ondoren, egingarri eta interesgarri egiten zaizkien aukeratzen dituzte eta lanari ekiten diote.

Lan egiteko modu honek, aurretik, irakurri den liburuaren ulermen egokia bermatu behar du. Proposatzen diren jarduerak kontakizunarekin erlazio zuzena dutenez,

argi geratzen da helburu hori betetzen dela.

Bestalde, ikasleek proposatzen dituzten lanak askotarikoak dira, eta adin honetako ikasleek duten imajinazioak amaierarik ez duela argi erakusten du. Sormen lanak izanda, beraien barrutik datozen lanak izanda, ikasleen aldetik konpromiso eta saiakera handiak lortzen dira eta emaitza paregabeak jasotzen dira.

Aurten ere uzta oparoa izan da. Aukeratutako liburu Martin eta Xabier Etxeberria anaien *Nik dauzkat aitona*ren hortzak izan da. Azpigai asko lantzen dituen istorioa da, eta horrek joko handia ematen dio gure lanari.

Adibide gisa, hemen ikasleek aurrera eramandako hainbat lan: pertsonaietan oinarritutako txotxongiloak, mahai-jolasak, buru-mapak, horma-irudiak, gaztelararako itzulpena, antzerkia, iragarkia, komikia...

– **Visita a Albaola.** Los alumnos de 2º de Primaria han estado en la factoría Albaola de Pasaia San Pedro para ver los trabajos de construcción de la réplica de la nave ballenera San Juan del siglo XVI. En la visita han tenido ocasión de conocer la historia de los balleneros vascos y la importancia de la industria de construcción de barcos. – **Desde hace varios años** en el tercer ciclo de Primaria se desarrolla un proyecto que auna la lectura y la comprensión. Tras leer el mismo libro, los alumnos realizan trabajos como marionetas basadas en los personajes, murales, traducciones al castellano, teatro, cómics, anuncios... El último libro sobre el que han trabajado es '**Nik dauzkat aitona**ren hortzak' de los hermanos Martin y Xabier Etxeberria.



## HARPA JOTZAILEAREN BISITA HHn

Inauteriak alde batera utzita, gai berri bati ekin diote 3 urteko ikasleek baserria eta musika uztartuz. Baserriak erabateko lotura duenez naturarekin, baserria gela barrura ekarri dute jolas txokoa lurraz hornituz. Bertan manipulatzeko lurra eskura izateaz gain, animaliak, barazkiak, zelaiak egiteko material ezberdina, txotxak eta egur pieza desberdinak jarri dizkie eskura. Honez gain, beste txokoak ere honen inguruan girotu dituzte. Musikarekin uztartu dute hori guztia eta baserriko animaliak banda bat osatu dute bakoitzak instrumentu desberdinak joaz, ondoren lagunei antzerkia eskainiz. Gurasoen parte hartzea bultzatuz guraso baten bisita jaso dute eta harpa gertutik ezagutzeko aukera izan dute, instrumentu ez ohikoa. Bide batez Haur Hezkuntzako ikasle guztiek izan dute aukera gertutik ezagutu, entzun eta gozatzeko!



## BOOKTRAILERRA

Galtzagorri Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Liburu Gaztea egitasmoaren barruan egiten duen Book Trailer Lehiaketan parte hartu dute gure DBHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleek irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin.

Zer da booktrailerra? Booktrailerra liburu bat iragartzeko sortutako bideo muntaia da, eta filmen trailerrak egiteko erabiltzen diren narrazio teknika berdintsuak erabiliz egin ohi da. Bideo digitalen formatu ohikoenekin sortu eta telebistaz nahiz Internet bidez hedatzen da. Liburuak iragartzeko ez ezik, irakurzaleak eta zale ez direnak liburuak irakurtzera motibatuz ere balio du booktrailerrak.

Gure ikasleek, lehenik eta behin, gomendatutako liburuen zerrendatik bat aukeratu eta irakurri behar izan dute. Ikasleen sormenak mugarik ez duela baieztatuz aukera izan dugu. Mota askotariko bideoak sortu dituzte: stopmotion, draw my life, eta beste hainbat teknika erabiliz lan bikainak ekoiztuz. Orain, lehiaketaren ebaluazio fasean gaude. Galtzagorri elkartearen webgunean ikasleen bideoak bozkatzeko aukera duzue. Epaimahaiaren eta publikoaren sariez gain, bozketan parte-hartzeagatik ere saria jaso dezakezue. Animatu!



– Finalizados los carnavales, los alumnos de 3 años han comenzado a trabajar los temas del caserío y de la música. Para ello, han llevado el caserío al aula y han llenado de tierra el txoko de los juegos, completándolo con animales, hortalizas o pequeñas ramas de madera. El resto de txokos también se han ambientado con este tema. A todo ello se le ha sumado la música y los alumnos, caracterizados de animales de caserío, han formado una banda. Los padres también han colaborado y uno de ellos ha ofrecido un **concierto de arpa** a todos los alumnos de Infantil. – Los alumnos de 2º, 3º y 4º de ESO han participado en el concurso de booktrailers organizado por Galtzagorri y la Diputación. Un **booktrailer** es un montaje de vídeo creado para anunciar un libro, parecido a los trailers de las películas. Para hacer el trabajo nuestros alumnos han leído uno de los libros propuestos para el concurso y han realizado trabajos muy interesantes que se pueden ver en la web de Galtzagorri, donde también se puede votar.

## ZIRKULU MAGIKOA

Zirkulu magikoa. 6 puntu baxu. Bina gehikuntza puntu bakoitzean. Horrela hasi genuen gure proiektua duela 5 hilabete. Ikasketa zerbitzu helburu, interneten murgildu ginen ideia bila eta deigarri egin zitzaigun Noupops elkartearen proposamena: denboraz aurretik jaiotako haurrentzat, inkubadoran dauden denbora horretan segurtasuna eta helduleku bihurtzen ziren gantxilozko olagarroak egitea. Posible dbh4 talde batentzat? Esan eta egin, seikote bati begiak diz-diz egin eta burubelarri hasi ginen lanean.

Bost hilabete pasa eta erronka lortu dugu: Jakintza Ikastolako komunitate osora hedatu dugu olagarroen ilusioa. Martxoaren 15ean Donostiako Poliklinikara gure lehen ekarpena egin genuen. Jakintzako ikasle, irakasle eta familiek jositako 20 olagarro inguru eraman genituen, ilusio handiz beteriko olagarroak.



## MAHAI SENTSORIALAREKIN GELAN JOLASEAN

Bost urteko gelan mahai sensorialak jari dituzte gaia lantzeko. Gorputza ardatz hartuta puntu ugari landu dituzte: jaiotza, eskeletoa, organoak eta euren funtzioak, beste hainbat gauzen artean. Berrikuntza bezala beste materialen artean mahai sensoriala erabili dute. Oso gustura aritu dira, eta ebetrik ekarritako erradiografiak aztertzeke erabili dituzte. Medikuntza ikasteko gogoia bati baino gehiagori piztu zaio dagoeneko!



– **Círculo mágico.** Seis puntos bajos. Se añaden dos más por cada punto. Así empezó nuestro proyecto hace 5 meses, cuando en Internet nos topamos con la propuesta de la asociación Noupops: tejer pulpos de ganchillo para los niños prematuros que deben permanecer un tiempo en la incubadora. ¿Sería posible para los alumnos de 4º de ESO? Dicho y hecho. Nos pusimos manos a la obra y tras cinco meses hemos superado el reto, propagando la ilusión de los pulpos a toda la comunidad educativa de la ikastola. El 15 de marzo se entregó en la Policlínica de Donostia una veintena de pulpos tejidos por alumnos, profesores y padres de Jakintza, unos pulpos llenos de ilusión. – En el aula de los alumnos de 5 años se han instalado **mesas sensoriales** que han permitido a los pequeños acercarse al cuerpo humano y conocer mejor el nacimiento, el esqueleto y los diferentes órganos y sus funciones, entre otros. Les ha gustado mucho e incluso han traído radiografías de casa. ¡Son los médicos del futuro!



irteera



## DBH 2koen irteera Aizkorri-Aratz parke naturalera

Martxoaren 9an, ostiralean, DBH 2ko ikasleek Arantzazun autobusetik jaitsi eta lau taldetan banatu ginen. Talde bakoitza bere begiralearekin Aizkorri-Aratz parke naturalean kokatuta dauden Aloña mendirantz abiatu ginen.

Garai batean gizakiak ustiatutako pagadi eta mendi-larreetatik ibilbidea egin genuen. Antzinako artzaintzak moldatutako larreak, bertan hazten diren hainbat zuhaitz, hala nola, gorostia, hagina, haritz motzak... eta hildako ardi eta behorrak jaten dituzten saiak ikusteko aukera izan genuen. Amaieran, gailurretik gertu zegoen elurrarekin jolastu ondoren, gure arbasoek eraikitako monumentu megalitikoaren arrazoiak entzun genituen eta Arantzazura jaitsi ginen bertan bazkaltzera.





## JAKINTZA IKASTOLA LILATOIAN

Jakintza Ikastolako neska korrikalarien taldea goraka doan proiektua da, eta azken urte hauetan partaide kopurua oso handia izaten ari da. 2018. urteko Lilatoian bigarren talderik handiena izan gara; 132 ikasle, guraso eta irakasle animatu dira 50. urteurreneko kamiseta jantzita Donostiako kaleetan olatu urdina irudikatuz. Eta noski, hori oso gauza handia da Ordiziaren tamainako herri batentzat!

Hori gutxi balitz, Izaro Rubio gurasoak ere lasterketa ezin hobea egin zuen eta, meritu handiko hirugarren postua lortu zuen gainera. Izarok ere 50. urteurreneko kamiseta jantzita egin zuen lasterketa eta saria amari eskaini zion, Jakintza Ikastolako sortzaile eta andereño izandako Rosarito Lasari.

Beraz, zorionak neskek!

Izugarria da egin duzuen, eta seguru gaude datorren urtean gehiago izango zaretela. Hau hasi besterik ez da egin:

**GORA JAKINTZA IKASTOLAKO NESKAK!!!**



**jakintza**ikastola

Altamira auzoa z/g  
Tfnoa. 943 16 05 40  
20240 ORDIZIA  
www.jakintza.eus  
ordizia@ikastola.net

